

## ILARGIAREN SEKRETUA FILMA BITERIN

### Niko Lizeaga: "Haurrentzako egin dudan lehen lana izan da, baina, eroso sentitu naiz eta asko disfrutatu dut"

■ Filma arrakasta handia ari da izaten ■ Hernanik pisu berezia izan du: Maialen Lujanbio gidoigile, Niko Lizeaga aktore, Joxe Mari Auzmendi HIK HASIko koordinatzaile, zenbait eszena Jauregin grabatu dira...

**ILARGIAREN Sekretua** haurrentzako filma gaur eta bihar botako dute Biterin: gaur, 16:30etan eta 18:30etan eta bihar goizeko 11:00etan. Euskeraz haurrentzat egin den lehen film honen berri jakiteko parte hartzaile izan diren bi hernaniarregana jo dugu: Niko Lizeaga da aktore nagusietako bat eta Maialen Lujanbiok egin du gidoia.

#### ■ Nondik barrena sartu zinen proiektu honetan?

**Lizeaga:** Hasieran, paper txiki bat egiteko proposamena egin zidaten eta baiezkoa eman nuen. Gero paper handiago bat eskaini zidaten eta pozgarria izan da niretzat gaizkile papera egitea, Ramon Agirrerekin batean. Elkarrekin lan egin dugun lehen aldia da eta aberasgarria izan da, ondo moldatu gara.

#### ■ Haurrentzako lan gutxi egin duzu, baina ondo moldatu zara.

Oso eroso sentitu naiz. Gaizto izaten ez dakien pertsonaia gaiztoarena egin dut. Pertsonaia oso pailazoa da eta asko disfrutatu dut egiten, baina, nekatu ere bai. Gorputz espresioan oinarritzen diren lanak gustora egiten ditut. Orain, gainera umeentzako beste antzerki lan bat egiten ari gara eta urtarilean egingo dugu Hernanin.

#### ■ Gidoian sartu bai eta hobetu ere egin duzula esan digute.

Aktore zaren aldetik beti aportatu behar da eta nik proposamenak egin ditut, ohitura hori badut. Lehen eszenan esaterako atera eta



Niko Lizeaga eta Maialen Lujanbiok parte hartu dute film honetan.

atea jo behar nuen. Tartean laguna aurreratu, estropozu egin eta horrelako gauzak

erantsi genizkion. Gidoi baten ganean aportazioak egitea erraza da guretzat eta

aportazio horiek eskertzen dituzte normalean gidoigile eta zuzendariak. □

### Maialen Lujanbio: "Istorio askoren lotura izan da azkeneko emaitza"

#### ■ Zure lehen gidoia izan da. Ze inpresio?

**Lujanbio:** Lan erabat berria izan da niretzat, esploratzeko eremua. Gainerako jendearen babesak eta talde lanak erakarrira hartu nuen lana. Baldintzak ere bereziak izan dira, denbora gutxi izan baitugu. Talde lan eta ilusio handia izan ditu lan honek eta estresa eta nekea ere bai. Konturatu naiz lan egiteko beste modu bat dela hau, beste klabe batzuk. Egia esan laguntza handia izan dut.

#### ■ Umeentzako izateak zaildu egin al du lana?

Polita da burua horretara jartzea. Eguneroko bizitzan harreman gutxi dut umeekin eta zaila da beren klabeetan jartzea, ez baikaude ohituta. Horretan izugarri erakutsi digute Pirritx eta Porrotzek. Bikoizketa bat egitea bezala izan da, guk gidoi zatiak prestatuak eraman, eta pailazoek gure klabeetatik umeentzara pasa.

#### ■ Nondik atera duzu gidoiaren muina?

Gai asko jorratzen dira, pelikula egitea baitzen helburu eta ez gai bati buruz hitz egitea. Bakoitzak bere interesak zituen eta pixka bat zehaztu arte denbora pasa zen. Nire lana izan da zeuden gai denak bildu eta istorio batean biltzea. Ekologia eta solidaritatea dira agian bi gai garrantzitsuenak. Gero ahalegin berezia egiten saiatu naiz hizkuntza aldetik: umeen esamoldeak, espresioak... kapritxo berezia jarri dut horretan. □

## ESANDA BEZALA

### Niko Lizeaga

"Zenbait eszenatan nik kristoren zartakoak hartzen nituen eta horiek ez dira ageri filmean. Zuzendariak esan zidan benetakoejak ematen zutela"

"Zaila izango da berriz ere horrelako film bat euskeraz egiteko aukera izatea. Filmak egiteko diru izugarri behar da eta euskerazko merkatua txikia da"

"Hiru aldiz bota beharko da pelikula bi egunetan. Izan ere Hernanin ez dago behar bezalako antzokirik. Inguruko herri gehienetan badute baina gu begira nola gauden"

### Maialen Lujanbio

"Istorioa metafora bat da: ilargia eta loreak bere egin nahi dituzte gaiztoek. Gutxi batzuen intereserako natura kontrolatu nahia azaltzen du"

"Hasierako istoriotik asko aldatu da filma. Publikoak emaitza ikusten du eta badirudi gustatu dela. Egin duenak falta dena ere ikusten du, baina, hori horrela da film munduan"

"Bertsolariei leku askotatik deitzen zaie gauzak egiteko: iritzi artikulu, gidoi... seguru asko bertsotan dabilenak oinarri bat baduelako, gaiak pentsatu argumentatu eta abarrerako"

## BIKAIN

OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia  
beti bikain



Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42  
Orkolaga 19 - Tel.: 943 33 14 87



CESTER familiak jaso zuen Elkanoko saskia  
Zenbaki saritua: 5.820

## HORTZ KLINIKA

- Oiarbide - Otxoa -



Orain helbide berrian aurkituko gaituzu:  
ORKOLAGA 3 - 5 behea - Tel.: 943 55 76 33





Baserriz baserri ibili zen olentzeroa, plazatik abiatu aurretik.

## Olentzero joan zaigu...

JOAN da Olentzero, eta Hernanin herritar askoren harrera jaso du aurten. Baserriz baserriko Olentzerorekin koadrila handia elkartu zen, trikitixa, bertso eta kantuz lagunduta. Kaxkoan barrena ere haur eta guraso asko ibili zen ilunabar aldera, Olentzerori opariak eskatzen. Bukieran opariak banatu zizkien Olentzerok gaztetxoenei, Udaletxeko arkupeetan. Ikusmin handia sortu du aurten ere. □



Herrian barrena opariak banatu zituen Olentzerok.



### Pagola-Salaberria irabazle Osiñagako mus txapelketan.

Isidro Pagola Txabolategikoa eta Sabino Salaberriak irabazi dute Osiñagako 14garren

mus txapelketa. Bigarren, Inaxio Ansa eta Joxan Aranburu ereñotzuarrak gelditu dira; hirugarren, Joxe Salaberria Don Ferminetako eta Gerardo Plaza; eta laugarren, Bautista Goikoetxea eta Aran-



tza Goikoetxea, Elorrabiko aita-alabak. Guztira, 32 bikoitek hartu dute parte aurten.

Bestalde, gabonetako auzoko saskia Kontxi Murua eta Pepe Sanz senar emazteei tokatu zaie. Zorionak! □

## Gazte Eragileen bilera gaur eta bihar

GAZTE eragileek bilera deitu dute gaur, arratsaldeko 20:00-etan Biterin, Gazte Asanbladari forma ematen hasteko. Bihar, bestalde leku eta ordu berdinean deitu dute bilera, ekintzak antolatzen hasteko. □



### JOXE IGARRITZ ETXEBERRIA

Larunbatean hil zen Hernanin

*Nahiz eta gure artetik  
urrutira joan,  
beti izango zaitugu  
gure bihotzean*

*Maria Luisa Izeta emaztearen lankideak*  
Hernanin, 2004ko abenduaren 27an

### 50 urte - ZORIONAK

*Carmentxu*



*Jose*

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103
- ▶ Alkoholiko anonimo: 943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Chucla  
Kardaberaz 48  
☎ 943 551793
- ▶ Gaez: Chucla  
Kardaberaz 48  
☎ 943 551793

### IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai Oarso kalean. Deitu telefono honetara: 660 77 91 60

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Emakume batek pisua behar du alokairuan Hernanin. 690 39 45 01

VITAL KUTXA. 70 plaza libre. Laster hasteko. Matrikula zabalik. Doako informazioa. 943 43 41 27.

HAUR HEZIKETA. Haurtzandegi publiko eta haur eskolatan plaza libreak. Doako informazioa. 943 43 41 27.

TXOFERRAK. Udaletxe eta Eusko Jaurlaritzan laster hasteko. Doako informazioa. 943 43 41 27.

SUKALDE LAGUNTZAILEAK. Eskola, erresidentzia eta Eusko Jaurlaritzan plaza libreak. Doako informazioa. 943 43 41 27.

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA. Udaletan laster hasteko: Hernani, Usurbil, Irun, Beasain, Altzo, Bergara, Zorrales, Mutriku, Zizurkil, Mendara, Anoeta. Doako informazioa. 943 43 41 27.

PEOIAK, elektrizistak, iturginak, soldatzaileak, igeltseroak. Erakunde publikoetan plaza libreak. Doako informazioa. 943 43 41 27.

UDALTZAINAK. 25 plaza bete behar dira: Eibar, Mutriku, Ordizia, Beasain, Hernani, Irun, Arrasate. Doako informazioa. 943 43 41 27.

LABORATEGIA. Teknikariak, auxiliarrak. Plaza libreak Udaletan, Foru Aldundian eta Eusko Jaurlaritzan. Doako informazioa. 943 43 41 27.

HAURTZAINDEGI PUBLIKOAK. Plaza libreak, zaintzaileentzat. Postu libreak eskola publikoetan. Doako informazioa. 943 43 41 27.

BASOZAINA. Udaletxe, Foru Aldundi eta Administrazio publikoan. Doako informazioa. 943 43 41 27.

**NAIKER** **IGELTSERITZA**

**NAIKER**  
Tel.: 652 762 438  
Antziola auzoa 12 - 1d  
20.120 HERNANI

**Era guztietako eraikuntzak:**  
- Barruak - Teilatuak  
- Lurrak - Fatxadak

**ETXE ONENAK. S.A.**

**GARAJE ITXIAK**  
"OBLATOS"ETAN SALGAI

Informatu eta saldu:  
☎ 943 33.22.37

**APERADERO TABERNA**  
HERNANI

Kardaberaz kalea 4,  
HERNANI  
943 33 04 14

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Telf.: 943 551494 / 943 551912  
Fax: 943 551130

**GESTORIA**  
**ZULAIKA**  
ASESORIA

Kardaberaz 68  
Hernani 20120